	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2017 AZA 28		
SARRERA	IRTEERA	
2841		

Abenduak 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, EH

Bilduren mozioa:

Abenduak 3, igandearekin, Euskararen Nazioarteko Eguna. Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3. egunarekin ospatzea erabaki zuen. Ia hirurogei urte igaro arren, oraindik orain, Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak bere horretan dirau.

Egia da, bistakoa baita, euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto baina ez aski. Egia da, azken urteotan lortu dugu Euskal Herriko lurralde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea. Egun, inoiz ez bezala euskaldunok berariazko erakundeak dauzkagula Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren behineneko arazoa, transmisiotik harago, erabilera dela, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela, alegia. Baina euskararen erabilera, xedea bada ere, ez da areagotuko oinarrian ez badu hiztun-elkarte zabala, sendoa, trinkoa eta engaiatua.

Datorren urtea, 2018. urte berezia da. Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak 100 urte betetzen dituzte eta 1968ko Arantzazuko Bileratik hona 50 urte igaro dira. Euskara Batuaren 50. urteurrena, alegia. Legebiltzarrak berariazko garrantzia eman nahi dio hizkuntzaren estandarizazioari eta Euskara Batuak normalizazioari dakarkiona nabarmendu. Hezkuntzan eta unibertsitatean, literaturan eta, oro har, kulturean, hedabideetan eta gizarte zerbitzuetan lortu duguna ez zitekeen posible izan hizkuntza eredu estandarrik izan ez bagenu.

Batasuna. Hori da giltzarria: batasuna. Euskara Batua izan da, eta, euskaren normalizaziorako euskarri sendoenetakoa eta euskararen hiztun-elkartearen batasuna erabilera eraikitzeke orube egokiena. Sakondu eta zabaldu behar dugu batasun hori. Aspaldiko partez, hizkuntza politika Euskal Herriko erakunde publikoen eskumena da. Euskal Hirigune Elkargoarena, Lapurdin,

Nafarroa Beherean eta Zuberoan; Nafarroan Garaian Foru Gobernuarena eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Jaurlaritzarena. Eskumenak baditugu, beraz, orain kudeatu eta, ahal dela, bateratu behar ditugu.

Batasunaren aldarria zabaldu nahi dugu Legebiltzarretik: Euskara Batua sendotzeko eta hedatzeko, doakotasuna euskara edonork ikas dezan, hizkuntza politika bateratua Euskal Herri osoan eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Horregatik guztiarengatik, Oñatiko Udaleko EH Bilduk Euskararen Nazioarteko Egunari begira (abendua 3) ondorengo mozioa onartu eta zabaldu nahi du:


Euskararen hedapena eta erabilera eraginkorra lortzeko ezinbestekoa hizkuntza eredu estandar egokia, gizarteratua eta onartua izatea. 1968 urteko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Bilkuran abiatutako Euskara Batuaren prozesua izan da, dudarik gabe, euskararen normalizazioa izan ahal izateko euskarririk sendoena eta, aldi berean, euskaldunen arteko batasunaren seinalerik argiena.

Horiek horrela, gure erakundeak adierazi nahi du bere atxikimendua euskaldunen arteko batasunari eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenei. Era berean, datorren urtean euskararen erabilera areagotzeko parte hartzeko konpromisoa gure egiten dugu.

Oñatin, 2017ko azaroaren 28an

a.- Mozioa onartu eta konpromisoa hartu izanaren berri **udalen arteko erakundeei** lehenbailehen jakinaraztea.

b.- Euskararen erabilera sustatzeko zehaztutako ekimenen berri **udalen arteko erakundeei** jakinaraztea, **erakunde horiek** horren berri eman dezan.

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.